


OIARTZUNGO XXXVI.
XABIER LETE
PROSA ETA POESIA
LEHIAKETA **2023**



XABIER LETE

prosa eta poesia lehiaketa

© Oiartzungo Udala

Lege gordailua: D-00400-2024

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Leitzaran Grafikak S.L.

OIARTZUNGO XXXVI.
XABIER LETE
PROSA ETA POESIA
LEHIAKETA **2023**



Zergatik idatzi euskaraz?

Zergatik idatzi euskaraz? Horixe izan zen kazetari batek Miren Agur Meaberi egin zion lehen galdera Espainiako Poesia Sari Nazionala irabazi berrikan. Sortzez euskaraz idatzitako testu batek sari hau irabazi zuen lehen aldia omen zen.

Euskaraz idaztea berez garenari eusteko ekintza bat da, maitasun-ekintza bat, familiarekiko eta sustraiekiko. Gizartearekiko eta norberaren garaiarekiko konpromiso-ekintza, Europako hizkuntzarik zaharrena den euskararen arnasa pizteko eta beste hizkuntzekin batera ondasun kultural unibertsal gisa iraun dezan laguntzeko. Euskaraz idaztea ekintza ekologikoa da, globalizazioaren nebulosan galtzea geldiarazten laguntzen baitu. Estetika ekintza bat da, besteen zerbitzura jartzen baitu hitzaren artea. Ekintza feminista bat ere bada, hainbat gai emakumeen ikuspegitik transmititzeko apustua egiten duena. Eta, azkenik, berritze ekintza bat da, literatura literaturaren beraren ikuspegitik lantzean datzana.

Kazetariari arrazoi hauek guztiak eman zizkion Miren Agur Meabek bere poema-bilduma euskaraz idazteko izan zituen motiboak azaltzeko, horiek guztiak izan baitziren idazlea euskaraz idaztera bultzatu zutenak.

Kazetariak egindako galderari nik beste hainbat gehituko nizkioke: Zergatik sortu euskaraz? Zergatik sentitu euskaraz? Zergatik ikasi euskaraz? Zergatik irakurri euskaraz? Zergatik hitz egin euskaraz? Zerrrenda amaiezina den sententzia dut. Baina esango nuke badagoela guztiak bere barnean bil ditzakeen azken galdera potolo bat: Zergatik bizi euskaraz?

Zergatik idatzi euskaraz?

Miren Agur Meabek kontzientzia ariketa zinez interesgarria egin zuen elkarrizketa honetan, zoragarria. Gizarte gisa ere ederra litzateke gure baitan horrelako ariketa kolektiboak aurrera eramatea, bizi garen mundu ero honetan norberaren kontzientzia noraino heltzen den jabetu gaitezen.

AIAKO HARRIA GAZTELUMENDI GAZTELUMENDI
Hizkuntz normalizaziorako zinegotzia



Oiartzungo Xabier Leta Prosa eta Poesia Lehiaketaren 2023ko saridunak

2023ko epaimahaikideak:

Pello Añorga Lopez
Goiatz Labandibar Arbelaitz
Marijo Telletxea Tolosa
Aingeru Palomo Zabala
Olatz Mitxelena Larreta
Sohalge Arbelaitz Kortabarría
Imanol Irigoien Aranberri
Intxixu AEK euskaltegia
Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilgunea

Ipuin kontalaria
Kazetaria eta idazlea
Irakaslea
Irakaslea
Irakaslea
Irakaslea
Poeta eta margolaria

Lehendakaria: Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi (Hizkuntz normalizaziorako zinegotzia).

Idazkaria: Aitziber Arnaiz Garmendia (Hizkuntz normalizaziorako teknikaria).

Zuzenketak: Arkaitz Goikoetxea Arriola.

Ilustrazioak: Ekaitz Zabalza Gaztelu ilustratzaileak sari banaketa ekitaldian zuzenean marraztutako irudiak.

Azaleko ilustrazioa eta logotipoa: Metrokoadroka Sormen Laboratekiko Idoia Beratarbide Arrieta eta Allende Arnaiz Garmendia.

2023ko saridunak

SAILA MAILA PROSA

1. SAILA	LH3	HUR LASA ALKORTA <i>Urtebetetzeak buelta eman du</i>	
		LAIDA GOYA BERROETA <i>Gabonetako istorioa</i>	
2. SAILA	LH4	GAROA ZABALA ARTOLA <i>Gabon magikoak</i>	
		LUMA LUJANBIO MARTIARENA <i>Lagunak</i>	POESIA
3. SAILA	LH5-6	XUHAR LARRETXE MUXIKA <i>Liburu magikoa</i>	ELENE OTAÑO BLANCO <i>Mitologia</i>
		JARE ZIAURRITZ OLAZIREGI <i>Beranduegi da</i>	IÑAKI LASA GUIMON <i>Bizitza</i>
4. SAILA	DBH1-2	AIORA ZALDUA ELIZETXEA <i>Amonaren urrezko sinadura</i>	JUNE DEL TESO OLAIZOLA <i>Ezer gabe hobe</i>
		MALÉN CAMPO ELIZETXEA <i>Pottolo</i>	AROA ARBIDE ZALACAIN <i>Zer da bizitza?</i>
5. SAILA	DBH3-4	ANE LEKUONA ARREGI <i>Mariñela</i>	IRATI GAZTELUMENDI YARZABAL <i>Bizi garen bitartean</i>
		KATTALIN ARABOLAZA PALOMO <i>Giltzapean</i>	LUR LARRAÑAGA ARRETXE <i>Ézagutu ginen eguna</i>
6. SAILA	16-18 urte		MALÉN ETXEBESTE LEKUONA <i>Ézin dut</i>
			MAREN AGINAGA BOTE <i>Loratu</i>

PROSA / AIPAMEN BEREZIA

1. SAILA – LH3

MATTIN ZALAKAIN GONZALEZ – *Gabonetako arazoa*

2. SAILA – LH4

ELUR ZIAURRITZ OLAZIREGI – *Nolako da hiltzea*

LARRAITZ MARITXALAR LEKUONA – *Sagarraren dimentsioa*

4. SAILA – DBH1-2

MARTXEL ARAGÓN HERNÁNDEZ – *Migranteak*

POESIA / AIPAMEN BEREZIA

3. SAILA – LH5-6


ALATZ NAZABAL OLASAGASTI – *Poesia*

5. SAILA – DBH3-4

LOREA ARRUABARRENA DESTREBATS –

Orri zuri-zuria

aurkibidea



PROSA

Urtebetetzeak buelta eman du	14
Gabonetako istorioa	16
Gabonetako arazoa	18
Gabon magikoak	20
Lagunak	22
Nolakoa da hiltzea	24
Sagarraren dimentsioa	26
Liburu magikoa	28
Beranduegi da	32
Amonaren urrezko sinadura	35
Pottolo	39
Migranteak	42
Marinela	45
Giltzapean	50

POESIA

Mitologia	58
Bizitza	60
Poesia	62
Ezer gabe hobe	64
Zer da bizitza?	66
Bizi garen bitartean	68
Ezagutu ginen eguna	71
Orri zuri-zuria	73
Ezin dut	76
Loratu	79

OIARTZUNGO XXXVI.
XABIER LETE
PROSA ETA POESIA
LEHIAKETA **2023**



PROSA



1. SAILA

PROSA

HUR
LASA
ALKORTA

URTEBETETZEAK BUELTA EMAN DU

1936. Oiartzun. Gaur Jon izena duen mutil baten urteak dira. Uste du bikain pasatuko duela. Horregatik oso urduri dago. Bat-batean eztanda bat entzun du. Tiro soinuak ere bai. Eztanda gehiago! Leihora joan eta hegazkinak ikusi ditu. Gauza batzuk erori dira. Lehertzen ikusi ditu. Etxeak lehertzen ikusi ditu. Beldurtu egin da! Orduan gurasoei esan die zer ikusi duen.

Sofan bildu-bildu egin dira. Suertez ez ditu bonba batek jo.

Bat-batean negarrez hasi da, orduan BOOOOUNSKS!!! indar berezi bat etorri zaio Joni.

Orduan pentsatu du:

- Gaur, nire urtebetetzea da eta bikaina izan behar du! Gerra hau orain-txe bukatuko da!

Leihora hurbildu eta dena normal dago.
Gerra bukatu da.

Katu katu, ipuina bukatu!

Pilotari gaztea





1. SAILA

PROSA

**LAIDA
GOYA
BERROETA**

GABONETAKO ISTORIA

Baziren behin, 2023ko abenduaren 23-24an, Olentzero eta Maridomingi, beraien etxean. Opariak bukatzen ari ziren.


Olentzerok bere teleskopioa galdu zuen, baina zuek galdetuko duzue:

Olentzerok zertarako behar du teleskopio bat? Ba, Olentzerok teleskopioa erabiltzen zuen, horrela ahal zuen ikusi pertsonak nola portatzen ziren.

Orduan Olentzero oso-oso haserre jarri zen eta kulpa Maridomingiri bota zion, eta Olentzerok esan zion: “zergatik galdu duzu nire teleskopioa?”

Orain akabo gabonak!”, eta bere logelara sartu zen. Orduan Maridomingi haserretu egin zen eta Olentzero konturatu zen gaizki egin zuela eta barkamena eskatu nahi zion, baina Maridomingik ez zuen onartu eta alde egin zuen.

Orduan Laida eta bere lagunak etorri ziren eta ideia bat eduki zuten.



Beraien ideia Maridomingiri esan zioten, Olentzero ez zuena gehiago haserretuko, eta Maridomingik onartu egin zuen.

Horrela, Gabon zoriontsu bat pasa zuten Laidak, bere lagunek, Olentzerok, Maridomingik eta Napok!

Laguna



1. SAILA

PROSA

**MATTIN
ZALAKAIN
GONZALEZ**

GABONETAKO ARAZOA

Gabonetan, 2023.urtean, Olentzero eta Maridomingi plazara jaitsi ziren. Bat-batean zerutik satelite bat pasatu zen.

Gauza harrigarri hori ikustean Maridomingik konortea galdu zuen. Ospitalera eraman zuten eta ondo jarri zen. Jakin zuten autoaren jabearenak zirela argiak eta ez zirela sateliteak. Autoaren jabeak barkamena eskatu zion Mari Domingiri.

Azkenean Olentzerok bakarrik banatu zituen opariak. Etxe askotara ez ziren opariak iritsi. Hurrengo egunean banatu zituen.

Aiako Harria





2. SAILA

PROSA

**GAROA
ZABALA
ARTOLA**

GABON MAGIKOAK

Behin batean, 2013ko abenduaren 24an, ostiralean, Irati eta bere bi lagunak, Garoa eta Niko, etxean zeuden. Iratik begi urdinak zituen, oso alaia zen eta abenturazalea. Garoari gimnasia gustatzen zitzaion eta ile marroia zuen. Niko oso dibertigarria zen eta kirolak gustatzen zitzaizkion.

Etxean zeuden gaua noiz iritsiko, Olentzero eta Maridomingi etxera noiz etorriko zain. Gaua iritsi zen. Irati eta bere lagunak Iratiren etxean lo egin zuten. Ohera joan ziren eta gau erdian zarata batzuk entzun zituzten. Altxa egin ziren jakiteko ea zeinek egiten zuen zarata. Olentzero eta Maridomingi ziren, Napok ihes egin ziela eta laguntza eske. Irati eta bere lagunak segituan joan ziren. Eta bere burua aurkeztu zuten.

- Ni Irati naiz eta hauek nire lagunak, Garoa eta Niko. Zertan lagun zaitzakegu?
- Napok ihes egin du.
- Han doa, azkar! Harrapatu egin behar dugu, Napok ditu opariak! Goazen!
- Handik doa. Zuek hortik eta gu beste aldetik, horrela inguratu egingo dugu!
- Ongi, harrapatu dugu!
- Ez, berandu da, haurrak laster esnatuko dira!
- Azkar, goazen opariak banatzera.

Hurrengo egunean, haur guztiak beraiek eskatutako opariekin ari ziren jolasten.

Katu-katu ipuina bukatu.

Naroa





2. SAILA

PROSA

**LUMA
LUJANBIO
MARTIARENA**

LAGUNAK

Egun batean herri batean bazen lagun kuadrilla bat. Gau batean kanpin denda bat prestatu zuten Lorearen terrazan. Geroago, denak iritsi zirenean, afaltzen hasi ziren. Baina itzal bat ikusi zuten eta lagunak pentsatzen hasi ziren:

– Zer izango da itzal hori? –galdetu zuten.

Loreak gau horretan ez zuen hain ondo lo egin.

Hurrengo egunean, esnatu zirenean dena normal zegoen baina lagunek jakin nahi zuten zer zen itzal hori. Orduan bilatzen hasi ziren. Itzala ikusi zuten lekura joan ziren baina ez zegoen ezer ere. Lorearen etxean ere bilatu zuten baina ez zegoen. Geroago, Anderren etxera joan ziren Ilargi, Lorea eta Mattin. Maitaneren etxera Oier eta Ainara joan ziren. Gero, berriz Lorearen etxera joan ziren zerbait aurkitu ote zuten esateko. Baina ezer ere ez. Gau horretan, Loreak berriro itzala ikusi zuen eta gerturatu zenean bere txakurra zela konturatu zen.

Miau, miau katu-katu ipuina bukatu.

Untxia





2. SAILA

PROSA

ELUR
ZIAURRITZ
OLAZIREGI

NOLAKOA DA HILTZEA

Behin batean, bazen neska bat Jare deitzen zena. 11 urte zituen, ile motza zeukan, etxean zegoen eta oso abenturazalea zen.

Gauero-gauero balkoira joaten zen bere aitonekin hitz egitera. Gau batean, pentsatu zuen ea nolakoa izango zen hiltzea. “Arnasten da? Ikusten da? Mamu bat gara?...”. Hori pentsatu zuen. Orduan, tanta batzuk atera zitzaizkion. Eta bere aitonetan pentsatu zuen. Bost aldiz begiak itxi eta ireki eta bera ere zeruan zegoen.

– Zeruan nago! –egin zuen oihu.

Atzetik hotzikara bat sumatu zuen, buelta eman eta bere bi aitona ziren. Besarkada bat eman zien baina ez zekien nola itzuli. Bere aitonek dena kontatu zioten eta berak beraiei. Egun bat pentsatzeko izan zuen; gero, bazekien. Bost aldiz begiak ireki eta itxi eta itzuli egin zen, ongi atera zen.

Bueltatzea lortu zuen eta asko disfrutatu zuen.

Katu-katu hildakoez gogoratu.

Rule





2. SAILA

PROSA

LARRAITZ
MARITXALAR
LEKUONA

SAGARRAREN DIMENTSIOA

Behin batean, 2099an bazen familia zoriontsu bat. Herrixka batean bizi ziren. Uda zen eta nahiko bero egiten zuen.

Familian sagarrak biltzen ari zirela, beste dimentsio batera joan ziren.

Anaia txikiak esan zuen:

- Beste dimentsio batean gaude.
- Beste dimentsio batean?
- Bai, beste dimentsio batean gaude.
- Baaaaaaa.....goazen sagarrondoak bilatzera.
- Baiiiii goazen!!!!
- Hor aurrean sagarrak ikusten ditut.
- Goazen. Zer egiten duzue hor geldirik? Goazen behingoz ba, ba, ba,ba... azkar etorri ona behingoz.

Sagarrak biltzen ari zirela anaia zaharrenari sagar bat erori zitzaion hanka gainera.

Despistatu eta hanketatik sagarra kentzen ari zen bitartean erleak eskuan zizta egin zion. Erlea ez zen edozein erle.

- Hori erle asiarra da –esan zuen amak.– Anbulantziari deituko diot.

Anbulantzian berehala joan ziren ospitalera. Medikuak esan zion ez zela oso larria baina badaezpada ospitalean lotan geratu behar zuela egun bat edo bi.

Hurrengo egunean etxera joan zen eta esan zuen:

- Gehiago ez dut dimentsio horretara joan nahi.
- Hori, hori nik ere ez dut joan nahi dimentsio horretara, beldur pixka bat pasatu dut.
- Ba... hurrengoan beste dimentsio batera joango gara.
- Bai, bai, hurrengoan beste dimentsio batera.

Hala bazan ez bazan, sar dadila hurrengo dimentsioan.

Larra





3. SAILA

PROSA

XUHAR
LARRETXEA
MUXIKA

LIBURU MAGIKOA

Bazen behin aspaldi-aspaldian Euskal Herrian Oiartzunen Ibai izeneko mutiko bat. Oso ausarta zen eta baita argia ere. 11 urte zituen Ibai izeneko mutikoak. Bere ametsa txorimaloari bizia ematea zen. Bere gauzarik gustukoena aitonarekin baratzera joatea zen, txorimaloa ikusteko.

Egun batean, Ibai aitonaren etxera joan zen. Iritsi zenean, txorimaloa-rengana joan zen. Baina hortik bi minutura ikaragarritzko eraso hasi zuen, aitona eta Ibai etxera sartu ziren. Etxera sartzean Ibaik liburu bat hartu zuen. Liburua eskuetan, aitonaren etxeko sofara joan zen irakurtzera. Izenburua “Txorimaloa” zen. Engantxatu egin zen segituan.

Pare bat ordu irakurtzen pasatu eta gero liburuaren azken orrira iritsi zen, baina azkeneko orrialdean *danba!!!* Ibai desagertu egin zen bat-batean. Liburuaren barnean ikusi zuen bere burua. Ibai irakurtzen ari zen liburuaren lehenengo orrian agertu zen. Ibai hasieran oso beldurtuta zegoen, baina berehala irribarre bat atera zitzaion aurpegian.

“Txorimaloa” liburua txorimalo bati buruzkoa zen, ume batek bizia ematen dio txorimaloari zentzumenak eta gorputzeko organoak lortuz. Ibaik emoji bat ikusi zuen eta galdetu zion:

– Nola irtengo naiz hemendik?

Ibaik segi zuen hizketan:

- Mesedeeeeeez erantzuuuuuun!!! –egin zuen oihu eta horrela erantzun zion:
- Nire aholkuei jarraitzen badiezu, lortuko duzu.

Hor bukatu zen elkarrizketa eta emojiak desagertu egin zen bat-batean.

- Bai, eta orain zer!!!!!! –esan zuen Ibaik haserre antzera.

Ibaik zerura begiratu eta papiro bat ikusi zuen zerutik erortzen.

- Espero dut emojiaren mezu bat izatea...

Orduan papiroa hartu eta irakurtzen hasi zen.

“Kaixo, Ibai, esan nahiko nizuke aholku hauei jarraitzeko. 5. eta 6. orrialdean sudurra eta begiak lortu behar dituzu. Ondoren, 7. eta 8. orrialdean azala eta belarriak, eta 9., 10., 11., 12., 13., 14. eta 15. orrialdeetan organoak lortu beharko dituzu. Bestela ezingo duzu zure mundu ederrera itzuli. Kar kar kar”.

- Bueno eta orain hemendik ateratzeraaaaaaaa!!! –egin zuen oihu eta hor hasi zen dena.

Lamia batzuk ikusi zituen Ibaik erreka polit batean, eta galdetu zien:

- Ba al dakizue non dauden begia eta sudurra?
- Bai, badakigu baina ez dizugu dohainik emango.
- Ongi da, zer egin behar dut begi horiek lortzeko?
- Ba, lehenik eta behin, Aiako Harriko kobara joan behar duzu. Hor intxixuak aurkituko dituzu eta intxixuei orrazia lapurtu behar diezu eta gero guri eman.
- Ongi da! –esan zuen Ibaik irribarre batekin.

Azkenean iritsi zen intxixuen kobara. Kobaren sarreran irrintziak eta oihuak entzuten zituen. Ibai hotzikara ematen zion hor sartzeak, baina sartu beharko. Azkenean sartu zen kobaren barrura. Oso ilun zegoen eta ikaragarritzko hotza egiten zuen. Azkenean ikusi zuen argia: su erraldoi bat zeukaten egina intxixu eta basandreek. Ibai arrastaka eta kontuz kontuz hasi zen kobara sartzen baina konturatzerako intxixu eta basan-



dre guztiak gainean zituen. Ibaiek hasieran pentsatu zuen akabatuta zegoela eta konortea galdu zuen.

Esnatu zenean harri bati lotuta zegoen etzanda eta janari mordoan ondoan. Ibaiek pentsatu zuen jan egingo zutela baina lehenengo gauza galdera izan zen:

- oPO-iaPAR-tzuPU-aPA-rraPA za-PA
- baPAi (SORGIN HIZKUNTZA)
- Oiartzuarra da!

Orduan festa hasi zen koban. Festa bukatzean Ibaiek orrazia eskatu zien. Orrazia eman eta gero Ibaiek bakoitzari besarkada bana eman eta joan egin zen. Orduan lamiengana hurbildu eta esan zien:

- Bueno, hemen daukat orrazia. Orain eman begiak eta sudurra.
- Ongi da, hemen daukazu eskatutakoa.

Orduan Ibaiek aurrera jarraitu zuen. Gero Ibaiek liburuko txorimaloarengana joan zen sudurra eta begiak jartzera. Ondoren, hurrengo elementuen bila joan zen. Hurrengo elementuak baso ilun batean zeuden, zuhaitz erraldoiak eta hosto mordoak. Ibaiek basoaren sarreran zegoen. Bere hel-

burua azala eta belarriak lortzea zen basoaren erditik. Bat-batean su ikaragarri bat ikusi zuen urruti-urrutian eta pertsonak dantzan. Ibaiek pentsatu zuen akelarre bat zela eta iskin eginez espiatu zituen. Baina adoreaekin esan zuen:

– Barkatu, emango al dizkidazue azala eta belarriak.

Sorginek lehenengotik esan zioten baietz eta Ibai joan egin zen txorimaloari atal horiek jartzera. Beste elementuak Oiartzungo mendi batean zeuden. Orduan galdetu zien zomorro-zinkori eta ote gizonari:

- Emango al dizkidazue organoak?
- Erantzun galderari: guk nola dugu izena?
- Zomorro-zinko eta ote gizona.
- Ongi dan hemen dituzu.
- Eskerrik asko.

Zomorro-zinkori besarkada eman baina ote gizonari ez, bestelaaaa... Ibai irribarre batekin joan zen txorimaloarengana eta piezak jartzen hasi zen.

Pieza guztiak jarrita:

– Aupaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa.

Eta orduan liburutik atera zen.

Ibai atera zenean, txorimaloa zuen besarkatuta eta Ibai negarrez hasi zen. A ze sorpresa: txorimaloa bizirik jarri zen. Ibaiek muxu bat eman eta esan zion:

– Hau da nire bizitzako egunik hobereana, maite zaitut.

**Hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan,
eta atera dadila Oiartzungo plazan.**

Larrea



3. SAILA

PROSA

JARE
ZIAURRITZ
OLAZIREGI

BERANDUEGI DA

Esaerak dioen bezala, “*egina egina dago, baina jendea ez dago prest ahazteko*”. Izan ere, ez dut inoiz ahaztuko nire bizitzari buelta eman nion eguna. Baina horrek jada ez du inporta.

Orain, nire bizitza epaiketa batean erabakiko da.

Jada hasi da epaiketa, epailea hasi da hitz egiten. Badakit epaileak gaur esaten dituen hitzekin nire patua erabakiko dela, baina, hala ere, ezin dut ekidin, nire buruak egun hartan pentsatzea.

“Ni bakarrik nintzen, nire aita eta ama lanean zeuden, eta nire anaia, berriz, lagunekin. Egun euritsua zen, beraz, sukaldean irakurtzen ari nintzen, erlojuak egiten duen tik-tak hori entzuten nuen bitartean. Konturatu gabe, ordu eta erdi igaro nuen irakurtzen, eta jada aspertzen hasia nintzen. Beraz, nire gelara igo eta Juleni, nire lagun minari, etxera etortzea proposatu nion. Berak, segundo bat bera ere galdu gabe, segituan etorriko zela esan zidan. Ez nuen ezer egiteko, etxeko lan guztiak amaituak nituen, eta nire gurasoak, joan baino lehen, ez zidaten ezer egiteko eskatu. Beraz, itxaroten nuen bitartean, berriz ere sukaldera jaitsi eta irakurtzen jarraitu nuen. Ordu erdi igaro zenean gutxi gorabehera, trumoiak eta tximistak entzuten hasi nintzen. Leihotik begiratu nuen ekaitz handia zen ikusteko. Tamalez, ez nenbilen oker. Euri zaparrada ikaragarria ari zuen, eta haizeak ia-ia zuhaitzak eramaten zituen. Beldurtzen hasia nintzen. Beraz, mugikorra hartu, eta nire amari etxera



etortzeko eskatu nion. Berak, beti bezala, bere ahots goxoarekin, ez kezkatzeko esan zidan, bidean zegoela”.

Bat-batean, malko batzuk sumatu ditut aurpegian. Momentu batetik bestera, negar zotinka hasi naiz. Baina, epaileak, batere kezkatu gabe, hitz egiten jarraitu du. Nik, kasurik egin gabe, kamisetako mahukekin malkoak garbitu ditut. Lasaitu ostean, nire buruan jirabiraka dabiltzan pentsamenduekin jarraitu dut.

“Bi ordu igaro nituen etxean, bakarrik. Kezkatzen hasia nintzen. Atearen parean eserita nengoen, mugikorra esku artean. Jada udaltzainei deitzen ari nintzen tinbrea jo zutenean. Segituan irekitzera joan nintzen, ama edo laguna zelakoan. Baina atearen beste aldean begiratu nuenean, nire aitak duela gutxi kalera bota zuen gizon bat ikusi nuen. Eskopeta bat zuen esku artean eta mozkortu aurpegia. Gizona erditik kendu zenean, bere atzean nire ama eta Julen laguna agertu ziren”.

“Ez nekien zer egin. Beldurtuta nintzen. Nire bihotzeko taupaden abiadura sentitu ahal nuen. Bat-batean ezertan ere pentsatu gabe, gizonari eskopeta kendu nion esku artetik, eta bere aurpegiaren parean jarri nuen. Berak, ordea, bizkarretik labana bat atera zuen, eta segidan nire amaren lepoan jarri zuen”.

“Mugitu ezinik geratu nintzen. Ez nuen nire gorputzeko atal bat bera ere sentitzen. Baina mugitzea lortu nuenerako beranduegi zen. Gizonaren labana nire amaren bihotzean sartua zegoen”.

Berriz ere, negar malko batzuk sumatu ditut aurpegian, baina, oraingo honetan, nire bihotza estutu eta tristura hori nire barnean gelditzea lortu dut.

“Lurrera erori nintzen, gertatu zena sinistu ezinik. Zer zen sentitzen nuen hori? Haserrea zen? Beldurra zen? Tristura zen? Guztiz nahasia nintzen.

Bere begirada hori ikusi nuen. Ikusi egin nuen erortzen zitzaion odol tanta bakoitza. Eta ikusi egin nuen jarri zidan irribarre hori”.

“Haserreak menderatua, altxatu eta nire ama hil zuen gizonaren aurpegian jarri nuen eskopeta. Banekien egingo nuena gaizki zegoela. Konpontzea ezinezkoa izango zela. Eta baita ere damutu egingo nintzela. Baina momentu horretan nik ez nituen nire gorputzaren mugimenduak erabakitzen, haserreak baizik. Ezin nintzen nire haserrearen kontra borrokatu. Momentu horretan indartsuagoa zen. Momentu horretan, nire haserreak nahi zuena egin behar nuen. Eta, nire haserreak, momentu horretan, mendekua nahi zuen. Beraz, nire hatza eskopetaren katuan jarri nuen. Baina, justu tiro egin nuenean... gizonak Julen erdian jarri zuen”.

“Hil egin nuen”.

Bat-batean nire burua epailea esaten hasi den gauza batean zentratu da.

– Epaiketa honekin bukatzeko, Unax Sagastiaran-Arruabarrena akusatuak Julen Etxebeste-Irigoien gaztearen heriotzaren errudun aitortzen du bere burua?

“Ez da beranduegi nire burua zorabiatzen duten galdera horiei erantzuna emateko. Bai, ordea, nire bizitzan egin dudan zuloa konpontzeko”.

Beranduegi da.

– Bai

Epailea



4. SAILA

PROSA

**AIORA
ZALDUA
ELIZETXEA**

AMONAREN URREZKO SINADURA

“Adiskide onekin...”. Gogoan dut zer esaten zuen duela 3 urte irakurri nuen orri zatiak, behean, urrezko tintadun lumarekin amonak idatzitako firma dotore eta ulergaitza zuenak. Nire logelako paretan jarri nuen zintzilik, nire amonaren arima ondoan edukitzeko. Hilabeteak ziren amona joan zitzagula, baina niretzat urteak igaro balira bezala zen. Luze egiten ari zitzaidan denbora amona falta genuenetik. Berarekin, aldiz, denbora hain azkar igarotzen zen...

Uda luze eta tristea igaro zen. Amonaren txikitako abenturak falta zitzazkidan eguna argitzeko. Udazkenean, berriz, oraindik nire amona faltan sumatzen nuen, baina poliki-poliki paretan nuen orri zatiarekin nire bihotza lasaitzen hasi zen.

Neguko oporretako egun batean, esnatu, eta nire amonaren orri zatia ez nuen paretan ikusten. Oso urduri jarri nintzen hori jakitean. Nire logela guztian barrena bilatzen aritu eta gero, ohearen azpian argi txiki eta distiratsu bat ikusi nuen. Mahaiaren gaineko linterna hartu eta argi txikia argiztatu nuen, orduan ikusi nuen nire txikitako ametsa. Maitagarrien ate txiki eta koloretsu bat. Momentu horretan, nire buruan amonaren paper zatiko esaldia gogoratu nuen: *“Adiskide onekin...”*. Badakit, esaldi hau ez dagoela bukatuta, baina nire amonaren txikitako egunerokoan, ez nuen esaldiaren beste zatirik aurkitu, hautsita baitzegoen. Beraz, amonarengan pentsatuz, ate txikirantz joan nintzen, atea ireki, eta PUM!



Begiak ireki nituenean, nire aurrean bide estu eta luze bat agertu zen, bertan perretxiko erraldoiek osatzen zuten bidea, kale-argiak izango balira bezala. Kale-argiek lurrean zeuden eskailera txiki batzuk argiztatzeko zituzten. Nik bideari jarraitu nion, ezin nuelako nire logelara itzuli. Gainera, nire amonaren orri zati preziatu hori lortu nahi nuen.

Eskailerak igotzerakoan, nire ezker aldean egurrezko seinale txiki bat ikusi nuen. “Maitagarrien mundua” jartzen zuen. Baina tupustean, nire atzealdeko landare bat mugitu egin zen. Linternarekin argiztatu eta ipotx urdin bat ikusi nuen, txapel zuri, galtza zuri eta oinetako zuriak zituen. Sorbalda gainean makila txiki bat zuen, eta puntan barraskilo bat zintzilik.

- Nor zara zu? -galdetu nion.
- Ni? Nik Ttanta dut izena. Eta urezko ipotx bat naiz. Eta zu? Nor zara? -galdetu zidan Ttanttak.
- Ni ez naiz hemengoa, nire amonaren orri zati bat galdu dut. Nire ohe azpian ate txiki bat ikusi dut eta sartu egin naiz -erantzun nion.
- Ados! lagunduko dizut! -esan zidan pozaren pozez.

Ttanttak bidean dena azaldu zidan. Hura maitagarrien mundua zela, eta mota askotako maitagarriak eta ipotxak zeudela, adibidez, uretako ipotxak eta maitagarriak, suzkoak, haizezkoak... Ttanttak azaldu zidan bera urdina zela, bere gorputz guztia urez beteta zegoelako, hau da, bere elikadura ura zela. Suzkoak zirenak labaz elikatzen zirela eta horrela maitagarri eta ipotx guztiekin. Ttanttak urezko maitagarri eta ipotxen arduradunarengana eramán ninduen. Eta nire aurrean aurkeztu zen.

- Kaixo! Nik Ur izena dut eta urezko maitagarri eta ipotxen nagusia naiz. Zer behar duzue? -esan zidan Ur-ek.
- Kaixo, nire amonaren orri zati garrantzitsu bat desagertu zait gaur goizean, eta bilatzen saiatu naizenean, ohe azpian ate bat ikusi eta sartu egin naiz orri zatia bilatzeko. Ttanttak zukanaino lagundu dit -erantzun nion.
- Ados. Hori lortzeko, erronka batzuk bete beharko dituzue -erantzun zidan.

Ur-ek pergamino bat eman zigun eta bertan hieroglifiko batzuk agertzen ziren, baina batzuk borobilduta zeuden, aulki bat borobil batez inguratuta. Bestea gurpil handi bat zen, eta azkenekoa, mahai bat. Biak txundituta gelditu ginen. Ttanttak esan zuen bere lagunekin gelditzen ziren lekuan aulki bakarti bat zegoela eta haren atzean laku handi eta polit bat. Hori izan zitekeela aurreneko lekua pentsatu genuen, beraz, ziztu bizian joan ginen lakura.

Lakura iritsi ginenean, aulkia aztertu eta gero, palanka bat zegoela ohar-tu ginen. Nik, bi aldiz pentsatu gabe, tira egin nuen. Bat-batean, aulkia- ren azpian, lur azpirantz zihuan eskailera kiribil luze bat agertu zitzaigun. Zur eta lur geratu ginen momentu horretan. Eta eskailerak jaisten hasi ginen. Barruan, zuhaitzen azal zatiak zeuden pilatuta, seguruenik, basoko ipotxek bildutako azal zatiak zirela pentsatu genuen. Azal bat

hartu nuenean, urrezko tintadun lumarekin idatzitako amonaren firma dotore eta ulergaitza ikusi nuen. Orduantxe jakin nuen bide onean gin-doazela.

Hurrengo pergaminoko marrazkia gurpil handia zen. Lakua inguratzen genuen bitartean, etxola baten ondoan errota handi bat ikusi genuen. Hura izan zitekeen gurpil erraldoia. Errota hura urezko ipotxek mugitzen zuten. Errotatik irteten zen ura aska batean biltzen zen. Haren ondoan urrezko edalontzi bat zegoen. Urez bete genuenean, nire amonaren orri zatiko esaldia agertu zen. *“Adiskide onekin...”*. Aurrera jarraitzea besterik ez genuen!

Etxolaren atzean, mahai zahar bat zegoen, eta bertan eseri ginen deskantsatzeko asmoz. Mahai gainean utzi genituen bidean aurkitutako altxorak, zuhaitz azala, eta urez betetako urrezko edalontzia. Halako batean, zintzarri hotsak entzun genituen. Milaka maitagarritz ingururatu geunden, eta beraiek hegalak astintzen zituzten bitartean, gure altxorretara urrezko hauts magikoa erortzen hasi zen. Ur inguratu zitzaigun eta bere hitz magikoak erabiliz enbor azala urarekin nahasi, zapaldu eta hauts magikoekin nire amonaren orri zatia agertu zen. Baina oraingoan esaldi guztia osatuta zegoen: *“Adiskide onekin, denbora labor”*.

Urmael



4. SAILA

PROSA

**MALEN
CAMPO
ELIZETXEA**

POTTOLO

2021eko otsailaren 25a

Kaxa txiki batean nago. Badira hiru egun nire ama ez dudala ikusten, ar-
tzain txakurrok ezin dugu denbora askoz leku txiki batean egon.

Builak eta kantuak entzuten ditut, eta neskatxa polit batek (Uxue, gaz-
taina koloreko ile luze eta lisoa, 7 urtekoa) kaxa ireki du. Lekuak festa
bat dirudi, ume guztiak nirekin jolasten hasi dira. Hezur bat, pilota bat,
makilak eta beste zenbait gauza oparitu dizkidate. Oso pozik jarri naiz.

2021eko martxoaren 28a

Hilabete bat pasatu da, Uxuek eta bere gurasoek ez didate kasurik egiten.
Egunero haserretzen dira ea zeinek aterako nauen paseatzera.
Uxue bere mugikorrari begira dago ia bi orduz.
Konturatu naiz opari bat besterik ez naizela eta ez nautela maite.

2021eko uztailaren 15a

Uxueren gurasoek eztabaida handi bat eduki dute. Oporretan Parisera
doazelako hotel batera, eta ez dakite zer egin nirekin. Segidan, Uxuere-
kin hitz egin dute.

Oso triste nago ez direlako konturatzen zer den norbaiti min egitea. Oraindik gogoan dut lehen egun hura. Zoragarria izan zen. Uste nuen egun guztiak izango zirela horrelakoak. Baina ametsak ez dira beti egia bihurtzen. Momentu onak ez dira asko izaten, eta disfrutatu egin behar dira. Ni beti saiatzen naiz, baina orain, bakarrik, ezin dut bizitzaz gozatu.

Paseatzera goaz Uxue eta ni, mendira. Momentu batean, begietara begiratu dit. Itsasoaren koloreko begiak dauzka eta, hunkituta, zera esan dit:

– Nire Pottolo, nire gurasoek beste leku batera nahi zaituzte eraman, bertiko, eta zure falta sumatuko zaitut.

Harrituta geratu naiz, asko mindu zait bihotza. Ez dut ulertzen. Ni? Abandonatu? Zergatik? Zerbait txarra egin dut? Errua nirea da?

Leku honetatik atera nahi dut, ez dut sinistu nahi Uxue galduko dudala. Zergatik ez zuten panpina bat erosi eta kito? Burua oso zorabiatua daukat, eta ezin dut pentsatu.

2021eko uztailaren 26a

Denbora aurrera doa, uste dut jada aurkitu dutela niretzako tokia. Egun gutxi geratzen zaizkit orain arte ezagutu dudan familia bakarra uzteko. Nire familia. Nire irribarrea desagertu egin da eta nire zorientasuna bukatzeaz dago. Negar batean nago. Bakarrik sentitzen naiz eta ez nau inork ulertzen.

2021eko uztailaren 29a

Uxue, behin baino gehiagotan niregana hurbildu da. Baina nik ez dut jolasteko gogorik. Ez gogorik, ez indarririk. Aurpegi arraroarekin begiratu dit. Pentsakor. Pixkana-pixkana, bere begirada goibeltzen joan da.

– Pottolo, zuk ez duzu nahi beste familia bat, ezta? Noski, gu gara zure familia. Eta familia ez da inoiz alde batera uzten. Nola ez naiz lehenago konturatu?

Uxue korrika pasilloetatik joan da gurasoen bila, negar malkoak dariola eta irribarre batekin ahoan.



– Ama! Aita! Pottolok gurekin geratu behar du! Gure familiakoa da eta beti gure familiakoa izan behar du. Konturatu naiz orain arte opari bat bezala tratatu dugula, eta ez da opari bat!

Gurasoek elkarri begiratu diote. Segidan, elkar besarkatu dute hirurek, eta...

– Zatoz, Pottolo! Zu falta zara eta! Orain lau gara.

Izugarritzko poza sentitu dut! Nire bihotza bularretik aterako dela ematen du!

2022ko irailaren 5a

Urte bete pasatu da, eta ordutik dena aldatu da. Zoriontsua naiz. Zoriontsuak gara.

Ahatea



4. SAILA

PROSA

**MARTXEL
ARAGON
HERNANDEZ**

MIGRANTEAK

Kaixo. Hakim izena dut, eta bai, nire bizitzako bidaiarik miragarriena egingo dut. Ruandan bizi naiz. Egun, berrogeita hamabi gradutan gaude. Bero naiz, etxerik ez, ama arrebarekin dago eta aita lana bilatzen, bizitza gogorra da eta Espainiara joatea pentsatu dugu. Badakigu bidaia gogorra dela eta hiltzeko puntuan egon gaitezkeela, baina bizitza berria hasi nahi dugu.

Ur bila nabil, ez dut aurkitzen. Pixkanaka temperatura igotzen ari da, beroa egiten du eta zorabiatzen hasi naiz. Lurrean eseri eta begiak itxi ditut, konorterik gabe geratu naiz. Egun bat pasatu da esnatu arte; ama eta aita oso kezkatuta daude, biharko eguna aukeratu dute bidaia egiteko eta, ondorioz, ni gabe joango ote ziren galdetzen zioten euren buruei. Etxera bueltatu eta ez dut inor aurkitu. Bakarrik nago, gose naiz eta ez dakit zer egin. Ordubete pasatu eta gurasoak ez dira etorri. Gainera, gutxi falta da bidaiarako eta gogo handia dut, baina indar gutxi.

Halako batean, ama eta aita agertu dira. Ama negarrez, ni hila nengoela pentsatzen zuelako. Azkenean gauzak baretu dira eta etxean denok la-saituta. Horrela, bidaia prestatzen hasi gara.

Gaur da, iritsi da hainbeste espero nuen eguna! Alde batetik, oso pozik nago, baina beste aldetik, triste nire etxea eta herrialdea utzi behar ditudalako, eta aldi berean pixka bat kezkatua bidaiak ekarriko dizkigun sorpresengatik eta ezbeharrengatik.

Portura joan eta bertan itsasontzi batera igo gara gu eta beste hirurehun eta berrogeita zazpi pertsona. Itsasontzia gainezka dago eta bidaiaria gogorra izango da; ez dago lekurik ezta arnasa hartzeko ere.

Gaua da eta dena ilun dago, hogeita egun daramatzagu barkuan eta pixkanaka jendea hiltzen ari da. Orain hogeita hamasei pertsona geratzen dira, baina nekatuegi gaude. Bost egun falta dira bidaiaria bukatzeko, baina denok gaixorik gaude eta indarririk gabe. Halako batean... barkua gelditu egin da. Denok izututa, harrituta geratu gara.

Orduan, barkuko gidariak motorraren arazoa dela esan digu eta segituan konpontzen hasi dira. Gauera arte egon dira lan eta lan, eta azkenean konpontzeko aukera izan dute; berriz ere bidaiaria jarraitu dugu.

Hogeita lau egun igaro dira etxetik atera ginenetik eta ama hiltzeko zorian dago. Azkeneko eguna da eta bederatzi pertsona geratzen gara eta bi ordu Espainiara heltzeko. Ama lo dago. Bere bularrean jarri dut burua eta konturatu naiz bere bihotzak ez duela taupadarik. Orduan, esnatzen saiatu naiz, baina alferrik izan da. Agur, ama, ez ditut inoiz ahaztuko zure musuak, zure besarkadak eta eman didazun maitasuna!

Azkenean, iritsi gara! Dena iluna dago, gainera, ezin gaituzte harrapatu dokumenturik eta pasaporterik gabe gaudelako. Bat-batean, poliziak agertu dira eta gu ezkututzen saiatu gara, baita lortu ere. Beste kideak, aldiz, harrapatu eta kartzelara eramane dituzte.



Gaurko eguna nire bizitzako txarrena izan da, baina aurrera begiratu egin behar dut.

Etxe huts batera iritsi gara. Ez dago inor eta dena zikin-zikina, baina lehenagokoarekin alderatuta, hobea da.

Gaur aita lana bilatzera kanpora joango da, etxean ezkututzen garen bi-tartean. Arratsaldeko zazpiak laurden gutxi dira eta aita ez da oraindik ailegatu. Azkenean aita iritsi da, baina lanik gabe. Hori bai, janaria lortu du, baina oso gutxi da. Hala ere, gu horrekin konforme, ezer baino hobea da eta.

Eskolara joan nahi dut, baina paperik gabe ezinezkoa da. Pena da, nire adineko ume pila ikusten ditut eta. Inbidia handia ematen dit, jatorrak diruditelako.

Kale gorrian nago, baina halako batean... mutiko bat gerturatu eta hitz egiten hasi zait, baina ez diot tutik ere ulertzen. Buruarekin baietz egin diot, baina bera aurpegi arraroarekin begiratzen hasi zait eta, azkenean, joan egin da.

Etxera bueltatu naiz eta aita ere bueltan da, eskaintza batekin, nahiz eta eskaintza nahiko kaxkarra izan: drogarekin trafikatzeari eskaini diote. Dena den, proposatu dioten lan bakarra da. Azken batean, dirua behar dugu eta ez zaigu askorik axola nondik ateratzen den. Okerrena da kartzelan sartzeko arrisku handia duela eta horrek pixka bat urduritzen gaitu.

Zazpi hilabete pasatu dira eta oraindik ez dute aita harrapatu, baina hau ez da bizimodu duina. Beti kartzelan bukatzeko zorian dago eta gu gurazorik gabe eta kale gorrian geratzeko arriskuarekin. Gainera, ez dugu aukerarik eskolara joateko, beraz, orduak eta orduak ematen ditugu ezer egin gabe eta lapurretan. Bizitza latza da eta ez da batere bidezkoa. Pobre jaio eta pobre hilko gara.

Denok eskubide eta aukera berdinak al ditugu?

Koxka



5. SAILA

PROSA

**ANE
LEKUONA
ARREGI**

MARINELA

Nire lurraldetik erbesteratua izan naizen marinela bat naiz. Itsaso zabalean nabil nabigatzen, nor naizen asmatzeko asmotan. Olatuek itsasontziaren egitura zaharra alde batera eta bestera mugitzen dute, airean dantzan dabilen luma dirudi. Uretara begiratzen dut eta izurdeak ikusten ditut urrutira, libre, denak batera saltoka, koreografia entseatu baten antzera. Olatuek eragindako mugimenduekin zorabiatuta nago, oinak lurrean finkatu ezinik. Buruak, berriz, mila buelta ematen dizkit, nire pentsamenduak irakurtzen saiatuz.

Janaria nahi dut, janaria behar dut. Indarra ematen dit. Jaten dudanean lasai sentitzen naiz, neure buruarekin bakarrik egongo banintz bezala, eta ingurukoak beste itsasontzi batean egongo balira bezala beste norabide bat hartuz. Ez ditut pertsonak ulertzen eta mundu nahasi honetan bizitzea zaila egiten zait. Gizartetik kanpo sentitzen naiz, inork nirekin bizi nahiko ez balu bezala eta horrek gehiago gosetzen nau.


Uste dut pertsona bakoitzak ezkutuko altxor bat duela, eta hura deskubritzeko giltza aurkitu behar duela. Nire giltza bilatu ezinik nabil eta hura aurkitzeko mapa esku artean dut. Luzaroan gordeta egon diren ametsak bete nahi ditut, eta horretarako, itsasontzi honetatik urrun bizi behar dut. Ez dut neure burua gai ikusten ametsak lur azpitik ateratzeko, beldurra diodalako nire etorkizunari eta ez dakidalako marinela izaten jarraituko dudana itsaso zabalean nabigatuz lasaitasuna sentitzeko.

Itsasoan noraezean nabilela, prismatikoak eskuetan hartu, eta ingurura begirutzen dut. Popa aldean, urrutira, itsaso nahasi bat zeharkatuz, lurralde bat ikusi dut, bertan nire ametsak egia bilakatzeko aukerak ditudala uste dut, nahiz eta seguru ez izan bete nahi ditudan. Branka aldera begiratu dut ondoren, eta uharte idiliko bat ikusi dut, pixka bat gertuagoa dago, itsaso bareago baten ostean. Uharte horretan pertsona guztiak ondo pasatzen ari direla dirudi. Erabaki ezinik nabilela, ohartu naiz uharteak sentsazio txarrak ematen dizkidala, bakoitza besteengandik isolatuta eta galduta daudela ikusi dudalako. Nire pentsamenduetan murgilduta nintzela, zeru oskarbira begiratu dut eta txori talde bat ikusi dut, denak elkarrekin hegoak astinduz. Istant horretan erabakia argi eta garbi ikusi dut, erosoago sentituko naiz txoriak bezala taldean hegan marrazo bakarti bat izanez baino.

Lurraldea oso urrutira ikusten dut, baina amesgaizto hau behingoz bukatzeko desira dut. Ez dakit iritsiko naizen, behin baino gehiagotan saiatu naiz, baina portura ezin iritsi nabil. Eskuekin lurra ukitzeko zorian egoten naiz, baina nire itsasontziak norabidez aldatzen du eta berriro itsaso zabalean galtzen naiz.

Iraganera ezin dudanez itzuli eta marinel izateko erabakia nire burutik atera, indartsu borrokatuko naiz erabaki horri aurre egiteko. Gogoan dut marinel izan nintzen lehenengo eguna. Zerua gris-grisa zegoen, eta haizea indartsua zenez, soinean nituen arropa zaharrak astintzen zizkidan. Gurasoak agurtu gabe atera nintzen goiz hartan nire lagunekin elkartzeko portuan, momentu haietan lagunek garrantzi handiagoa baitzuten gurasoek baino. Beraiek ere marinel izateko desiratzen zeuden, itsaso zabaleko sekreturik sakonenak aurkitzeko. Garai haietan marinel izatea ohikoa zen, bere bizitzaren iparrorratza galtzen zuten pertsonen aukeretako bat zelako eta garrantzitsuak sentitzen zirelako jendearen begiradek zizelkatzen zituztenean. Urteetan gure bizileku izandako lurraldeari begiratu gabe, itsaso zabalean galdu ginen gertatuko zenaren susmorik izan gabe.

Egunak pasatzen joan ziren, eta orduan eta gose gehiago izaten genuen. Jaten pasatzen genituen orduak; eta portura iristean, zuzenean joaten ginen jateko gehiagoren bila, ondoren sekulako bazkaria egin ahal izateko eta lurrean bapo janda bukatzeko. Lagunarteko uneak haserre bila-



katzen joan ziren pixkanaka. Goseak sortzen zigun haserrea kontrolatu ezinik, bakoitzak bere itsasontzia lortu zuen eta bere bakarkako bideari ekin zion. Hasieran inguruan genituen arazoek konponbide bezala hartu genuena, ondoren amesgaizto bihurtu zen. Ez lagunik, ez gurasorik. Nire bizileku bihurtu zen itsasontzi hartan ez nuen inoren berotasuna sentitzen. Ingurura begiratzen nuen bakoitzean, itsaso urdina ikusten nuen, eta inor ez ulertzen ninduenik.

Orain, nire hitzetan preso bizi naiz. Marinel izateko erabakia gorrotatzen dut eta edozer egingo nuke nire bizitza aldatzeko. Behingoagatik munduaren zati naizela sentitzeko beharra dut, nahiz eta horrek gustatzen zaizkidan gauzei uko egitea eskatu. Haurra nintzen iraganera itzuli nahi dut, itsasoa ezezaguna nuen iragan horretara, goserik ez nuen iragan horretara, nire ingurukoek falta sumatzen ez nuen iragan horretara, eta etorkizuna perfektua izango zela pentsatzen nuen iragan horretara. Iparrorratzak iparraldera joateko esaten dit, baina nire buruak hegoaldera joateko eskatzen dit. Behingoz, dena alde batera utziz, itsasontzitik jauzi egin eta itsasoaren ur gazitan hondoratu nahi dut, nire pentsamendu eta gorroto guztiarekin.

Buruak sortzen dizkidan istorio guztietako protagonista izan nahi dut. Hura itsasontziko kapitaina da eta bere inguruko guztiei laguntzeko prest dago. Ez du bere inguruan etsairik, denek gustuko dute bere eskuzabaltasun eta adorea. Aurkitzen dituen altxorak behartsuei

ematen dizkie eta gizakion berdintasunagatik borrokatzen da. Nire buruak milaka istorio idazten ditu pertsonaia horren abenturak kontatuz, inguratzen duen guztiaz istant batez libre izateko eta izan nahi duena izan ahal izateko. Marinela naizenetik eragin ditudan ezbehar guztien protagonista lapur bat den heinean, nire buruak sortutako protagonista heroia da, arrazoi gehiago emanez itsasotik urrun bizitzeko eta neure burua ulertzen hasteko.

Marinel naizenetik egin ditudan gauza guztiez gogoratzen ez naizen arren, badago zerbait nire istorioetako protagonistak egingo ez lukeena eta egunero etortzen zaidana burura. Portura iristen nintzenean beti egiten nuen modura, zuzenean joan nintzen nire itsasontziko zamategia betetzeko janari bila. Ez nuen diru asko, lagunekin banandu nintzenetik zailtasunak nituelako dirua lortzeko. Horregatik, nire itsasontzi zaharra portuan utzita, fruta saltzen zuen gizon batengana joan nintzen. Gizona gaztea zen eta soinean zuen arropak zituen zuloetatik, bere azal fina ikusten zen. Argi eta garbi gogoratzen dut labana kamutsa sabelaldean jarri nionean begiratu zidaten begi ilunen errukia. Dirua emateko eskatu nion eta bost txanpon eman zizkidan zuen guztia zela errepikatuz. Begietatik ateratzen zitzaizkion malkoek nire itsasontzira errudun itzultzea eragin zidaten. Ordutik ez dut haren begietako distira ahaztu eta gauero gizon gazte horri egindakoaz damutzen naiz. Halere, egun hartan nire gosea ase nuen.

Behingoz, aingura bota nahi dut eta nire bizitza zerotik hasi, nahiz eta egin ditudan akats guztiek konponbiderik ez izan. Maite ditudan eta maite nauten pertsonak edukitzearen sentsazioa berreskuratu nahi dut eta nire gurasoei barkamena eskatu sufriarazi diedan guztiagatik, marinela den seme edo alaba bat edukitzea ez delako erraza. Hazi duzun pertsona bat ez ezagutzeak munduaren amaiera dela sinetsarazten dizu eta ez daukazula zereginik hori aldatzeko. Zeure burua erruduntzat hartzen duzu, mila ideia burutik pasatuz. Maite ditudala esan nahi diet eta beraien besotan murgildu. Ez dakit zenbat egun, agian hilabete edo urte, igaro diren ur gazi hauetan barneratu nintzenetik, baina galdutako une bakoitza berreskuratu nahi dut.

Nire bizitza marinelekin konparatzeak askatasuna ematen dit naizen bezala ez agertzeko. Itsasontzia nire akats guztien metafora bat izateak eta bapo janda egoteak sentiarazten dit nire bizitza ez dela hain kaskarra.

Nire buruan itsasoa izan den kale zikin honetan nago orain eta nire sentimendu sakonenak etorri zaizkit burura, ohartaraziz ez nagoela bizitza honetan gustura eta nire etorkizuna ezin dela hau izan.

Gero eta argiago ikusten dut drogak alde batera utzi behar ditudala eta nire ametsak betetzeko ordua iritsi dela. Bidea zaila izango den arren eta olatuek ito egin nahiko nauten arren, nire gogoek indartsu egiten nauten. Arraunean hasi behar dut porturantz eta nire bizitza berreskuratzen saiatu orain arte nire altxorrik preziatuena izan den droga berriro lurperatuz.

Nire gotorleku izan den kale honetatik ateratzea erabaki dut eta herriko plazara joan naiz zuzenean. Plazara sartu orduko, bertan zeuden guztien begiradak nabaritu ditut, halere nireak plazaren erdian zegoen bankuko emakumean finkatu dira. Beti bezala hor zegoen, hainbestetan maite ninduela errepikatu zidan emakumea, mundu honetan gehien eskertu behar dudana pertsona. Berarengana gerturatu naiz eta gure begiradak berriro elkartu direnean sekulako lasaitasuna sentitu dut, badakidala-ko ulertu eta lagunduko nauen pertsona bakarra izango dela bera, nire ama.

Itsaso guztien gainetik eta laino guztien azpitik, itsasontzia portuan utzi eta zorionsu bizi.

Garapena



5. SAILA

PROSA

**KATTALIN
ARABOLAZA
PALOMO**

GILTZAPEAN

Munduko edozein aberaskumek daki zer den desio izan gabeko opari bat jasotzea. Munduko edozein aberaskumek jaso du ezergatik ere sekula eskatuko ez lukeen opari bat. Bere gauzekin batera gordetzea edo ez gordetzea berdin-berdin zaion opari bat. Hondakin denak biltzen diren zaborrontzira botatzeak inongo errukirik emango ez diona. Dena dela, munduko edozein aberaskume aspertu da, bitan pentsatu gabe, kapritxo hutsagatik eskatutako opariarekin; bere buruari gerora erabiliko ote duen galdetu gabe eskatutako opariarekin. Azkar aspertu ere; kolorezko paper erakargarria kendu eta ilusio handiko bost egun eskas barru, ahanzturaren atzaparretan erortzen da erregalua. Ikusezintasunaren kapak betiko ezkutatuko balu bezala. Inongo desiorik gabe eskatutako zerbait... Ba al du zentzurik horrek?

Herriko edozein bazterretan topa daitezkeen zakur lodi eta mimatuak bezalakoak diren haur horien jokabideaz ari naiz. Mimatuegiak, seguruenik. Nahi duten guztia jartzen zaie muturraren aurrean: jan eta lo besterik ez dute egin behar. Baina hori ez da haurren erabakia; gurasoen errua baizik. Jokabide hori izaten irakatsi egin zaie edo urte luzez izan dute nahi izan duten oro egiteko ditzosozko baimena. Batzuetan, lau hitz xumek esanahi handia har dezakete: “Sugeak, bera bezalako umeak”.

Halere, Nigeriatik Euskal Herrira etorri nintzenetik, denetarik ikusi dut nire inguruan: aita-ama batzuk, lehen aipatu bezala, urrezko lingoteak zaintzen ari direla dirudi. Gehiegizko babes eta arreta eskaintzen diete euren

haurrei. Eta, horren emaitza hauxe da: zerbait gustuko ez duenean negarrez hasten den haur lerdo bat. Beno, ongi ulertu dela uste dut. Badago, ordea, euren haurrei independentzia handiagoa ematen dienik ere. Behar den kasuetan arreta eta behar denetan askatasuna eskaintzen diena. Ez gehiegizkorik eta ez gutxiegiakorik. Heziketa osasungarri baten hazia. Eta, hirugarrenik, badira oheratzeko musurik ematen ez duten gurasoak. Baita etxera itzultitakoan familia guztietako galdera ohikoena egiten ez dutenak ere: “Zer moduz eskolan?”. Ez dizute beharrezko babes, arreta, ez eta inolako askatasunik ere ematen. Horren orde, gauza izugarriak eskaintzen dizkizute. Hobe esanda, gauza izugarriak ematen dizkizute, horiek ukatzeko aukerarik izan gabe. Baina nahiago dut ez eman adibiderik; oroitze hutsez, gorputza hotzikara batek zeharkatzen dit, eta besoetako ile horixkak kanabera-landareen antzera jartzen zaizkit. Tente.

Tira, lehengo hariari helduz, ni inoiz desio gabeko oparia naizela ondorioztatatu dut nire bizi labur bezain gogor honetan. Ez dakidana zera da: ea nire gurasoek (nahiz eta ama nor den ez jakin) desiratu gabe munduratu nintzen, ala bitan pentsatu gabeko ideia ero baten kapritxoagatik jaioa naizen. Ez dakit nola eta zergatik etorri nintzen mundu honetara. Ez daukat nire jatorriaren berri, eta bene-benetan ez dakit jakin nahi dudan ere, inoren gustukoa ez den trapu zahar inuzente bat naiz eta.

- Zer ari zara ordu hauetan esna?! Ez dakizu bihar eskolara joan behar duzula, ala? –aitaren (aita deitu ahal bazaio) betiko oihu desatsegin eta beldurgarria. Badakit ume asko negarrez hasiko liratekeela beren gurasoek horrela hitz egingo baliete; ni, aldiz, ohituta nago. Tarteka, nire baitan galdetzen dut ea bizilagunek zer pentsatuko duten garrasiak entzutean: sendoa dirudien horma batek banatzen bagaitu ere, alboko etxeko amonaren irratia entzun daiteke gau partean, beti gauza bera aipatzen dela iruditzen zaidan arrosario santu aspergarria martxan duela. Beraz, hobe da bizikideen artean sekreturik ez gordetzea, edo nork eduki baitezake paretaren bestaldean belarria zorrozturik.
- Eee, ezertxotan ere ez –erantzun diot totalka nire larruzko koadernoak kolpez itxi ondoren. Nire gelako atea bat-batean ireki duenez, sustoaren sustoz, ez zait ezer gehiagorik esatea otu.
- Zer duzu, bada, esku artean? –tematu da, lehengo tonu berarekin. Zorritzarrez, koadernoan idatzitakoa ezkututzen saiatu naizela ikusi du,

eta bi urrats egin ditu nigana are gehiago gerturatuz. Isilik jarraitzen dudala ikusita, eskuak gerrikora eraman ditu, larruzkoa hura ere, eta askatzeko keinua egin du. Gerrikoa. Nire zorigaiztoko ametsa. Gerri bueltan lotzeaz gain, beste funtzio bat har dezakeela ikasi dut. Nire zoritxarrerako, aitak ezin hobeto daki niretzat zer esan duen gerrikoak, eta erantzuteko xantaia moduan erabiltzen du.

- Eskolarako lan bat -ihardetsi diot ahal bezain azkar. Gezurra. Gezurra esan diot aitari. Hala ere, nork bere burua defendatzeko esandako gezurra legezkoa dela uste izan dut betitik; hortaz, ez naiz damutzen. Nire ahotik irtendakoa entzunda, gerrikoa disimuluz zuzendu du, hasieratik horretarako asmoa zuela aditzera emanez, eta gelatik atera da, nahiz eta erritmo mesfidati bat ikusten den bere pausoetan.

Aita gelatik irten den arren, gaurkoz koadernoan idazteari utzi diot, agian beste ezustekoren bat izango dudan beldurrez. Kaiera ezkutuan gorde, eta ohean sartu naiz. Berehala itxi ditut begiak, loaren besoetan kulunkatzen naizela sentituz.

Pi-pi-pi, pi-pi-pi, pi-pi-pi. Goizeko zazpietako alarma. Iratzargailu mada-rikatua! Behin baino gehiagotan pentsatu izan dut erlojurik egongo ez balitz, ikasleok askoz ere zoriontsuagoak izango ginatkeela; alabaina, ez genuke, astean bost egunetan, goizean goiz gure loaldia eten eta eskolara joateko prestatu beharko. Kolpez nire pentsamenduetatik irten naiz aitak nire lagun maiteenak diren izara zuriak atzerantz tiratu eta pertsiana tupustean igo duenean. Zarata. Ez al dago apur bat lasaixeago iratzartzeko beste modurik? Umore txarrean jartzen nau nahi duen bezala esnatzen nauenean. Kexatzeko imintziorik txikiena egiten badut, ostera, infernua datorkit gainera. Gauzak horrela, badakit nola jokatu behar dudana: ematen duen agindu oro protestarik gabe bete behar izaten dut. Finean, ni naizena baino gehiago, aitak nahi duena naiz. Aita da gure etxeko erregea. Errege krudela. Ez zaio axola norbait mintzen duen ala norbaiti enbarazu egiten dion, hark berea egiten du eta kitto. Bere barrenak husteko erabiltzen nau. Jo egiten nau. Ez nau maite. Nahiago nuke gizon gaizto hori nire aita ez balitz. Ez daki besteen lekuan jartzen; akaso, ni bezalakoa zen garaian, ez zuen ikasiko errespetua zer den.

Sekulako negargura sentitzen dut batzuetan, ekaitz hodeiak bezala, une batetik bestera lehertzeko gogoia. Dena den, mihia zulora sartu eta negar

malkoak karioletan preso gordetzera behartzen nau, irteten utzi gabe; aitari ez zaio-eta gustatzen gertatzen ari denaz inor ohartzetik.

Gogo txikiarik ez banuen ere, pijama zimurtua soinetik erantzi eta eskolara joateko atondu naiz nahiko presaka. Nire gustukoena den gona bakeroa eta kamiseta zuria jantzi ditut. Aspaldiko partez, ongi sentitu naiz ispiluan islatutakoa ikustean. Izugarri gustatu zait nola geratzen zaidan jantzitakoa. Baina, gosaltzera joan naizenean, irribarrea guztiz lautu didate aitaren hitzek:

– Nora zoazela uste duzu piura horrekin? Ez duzu nahiko mutilen batek gona altxa edo azpitik begiratzerik, ezta? Aldatu oraintxe bertan arropa hori.

“Zuk ez didazu aginduko zer jantzi behar dudan! Nire gorputza nirea da, eta gona janztearren, ez du zertan mutil batek nigan gerturatu”, esan nahi izan dut. Horretarako aukerarik izan gabe, ordea, burua makurtu eta nire gelan sartu naiz. Ezin dut horrela jarraitu, egoerak garaitu egingen nau. Nahi duen guztia esan diezadake aitak, eta nik, berriz, ahotsik gabeko neskatila baten papera egin behar dut. Obeditzea. Horixe da bizitza honetan irakatsi didan gauza bakarra. Nire ilusio guztiak pikuta-



ra bota dituenez, indarrrik gabe, arropen armairua ireki eta lehenengo begiztatu dudana jantzi dut. Iruditzen zait, ispilura begiratuta, jada ez duela lehenengo gisara distiratzten nire irudiak.

Kopetilon, eskolara abiatu naiz. Traba egiten didan guztia desagerrarazteko desira dut. Nigandik aldentzekoa. Espaloi osoa niretzako nahi dut, utikan beste guztia! Beraz, bidean topatu dudana hartxintzar bakoitza indarrez jo dut urrutira. Badakit ez dutela gertatzen zaidanaren errurik. Nola edo hala barrua askatu beharra nuen.

Gaur ere, espero bezala, betiko moduan tratatu naute eskolan ere. Nahiz ez nauten gerrikoz jotzen, zartada berdin-berdin sentitu ohi dut bihotzean. Maleziaren zartada. Inori gustatzen ez zaiona. Hala ere, klasekideen begietan ezertxo ere sentitzen ez duen neskatila naiz, eta panpina baten moduan erabiltzen naute: nahi duten erara hitz egin eta begiratzten didate. Panpina bat. Horixe naiz beraientzat. Ez pertsona, ez biziduna. Deus sentitzen ez duen panpina bat baino ez.

Etxera heldu eta lehen gauza larruzko koaderno hartu dut. Nire barruak askatzeko erabiltzen dut; mesede egiten dit. Inori kontatu ezin dizkiodan gauzak idazten ditut bertan, nire barruan korapila ez daitezen. Atzo utzi nuen orrialdean ireki, eta boligrafoa hartu dut:

Amaigabeak egiten ari zaizkit egunak. Amaigabeak dira ikaskideengandik jasotako irain, begirada eta mespretxuak. Amaigabea da nire azaleko orbainen katea ere: ubeldu bat ezabatzen denerako, beste bat dut agerian. Eta, kontaezina da nire buruari galdera bera zenbat aldiz egin ote diodan: merezi al du horrela jarraitzea? Nahiz erantzuteko erraza dirudien, sekulako anabasa sortzen da nire buruan galderak orratz baten moduan burua ziztatu orduko. Batzuetan, bizitzeko ditudan indarrek ihes egiten didatela iruditzen zait. Edo bizitzak berak egiten dit ihes. Izan ere, modu honetan bizitzea, bizitzea al da? Nirea den gorputza besteen menpe edukiz bizitzea, bizitzea al da? Halere, gehien pentsarazten didana zera da: nirea ez den paper bat antzetzuz bizitzea, ea bizitzea den. Finean, ni ez naizen pertsona baten barruan preso nago. Egiatzko "ni" hura giltzapetik askatu nahian. Ezinezkoa zait, ordea. Ni baino indartsuagoa den ezinak estu besarkatzen nau.

Hartu dut erabakia. Behingoz, aldamenetik kenduko dut urtetan eraman dudana zama. Ez dut nire parean gehiago egoterik onartuko, ez horixe.

Boligrafoa utzi dut. Uste baino luzeagoa egin zait aita ohera sartu denerako tartea. Urduritasunak erraiak jan dizkit. Baina iritsi da momentua. Nire bizitzaz gozatzeko momentua. Bat eta bakarra. Lehena eta azkena. Motza izango da, baita berezia ere. Etxeko arropak di-da kendu, eta adoretzu, gona bakeroa jantzi dut. Azkenekoz begiratu dut ispilura, irribarrea ezpainetan. Egurrezko atea poliki zabalduz, etxetik irten naiz. Kanpoan naiz. Besoak luzatu, eta nire indar guztiarekin egin dut korrika. Azkenekoz ikusi ditut hareharrizko kaleak, ilargiak zipriztinduta. Azkenekoz ikusi dut haur-parkea; eta azkenekoz ikusi dut eskola. Nire bizitzan azkenekoz ikusi dut herria. Une honetan, oso-osorik niretzat daukadan herria.

Helmugan nago. Nire bizitzako azken segundoaren atarian. Azken hatsaren atarian. Auskalo aitak zer pentsatuko duen bihar ohetik jaiki, eta ikusten ez nauenean. Koadernoan hortxe utzi diot zabal-zabalik. Ea nire idatziak irakurtzeko ausardiarik baduen. Ea egia gordina irakurtzeko ausardiarik baduen.

Begiak itxi, eta han behetik datorren olatuen hotsa entzun dut. Nire bizitza begi-kliska batean pasatzen ikusi dut. Sufrimendua birsentitu dut iraganera begiratuta. Atzo nintzen pertsona ikusi dut: beldurrez blai. Oraingo ausardia hau banuela ez zekien pertsona gajo bat. Tira, aski da. Unean unekoa bizi behar da. Orain, gozatzea dagokit. Behingoan, libre naiz. Bi besoak zabalik, amildegitik beherantz begiratu, eta gorputza erortzen utzi dut, berunezko irudia balitz bezala. Hegan. Hegan ari naiz. Kresala arnastu dut. Benetan bizitza zer den jakin dut. Indartsu sentitu naiz, ausarta. Ukitu dut lurra. Baita sentitu ere. Arroken artean dantzan nabil, aske. Olatuen erritmoan aparra banintz bezala. Apurka-apurka nire gorputza gelditzen sumatu dut; lokartzen. Banoa. Merezi izan du, ostera. Tunel ilunaren bestaldean argia ikustea lortu dut. Benetako “ni” hura giltzapetik askatu dut. Nor naizen jakin dut.

Hotzikara

OIARTZUNGO XXXVI.
XABIER LETE
PROSA ETA POESIA
LEHIAKETA **2023**



POESIA



3. SAILA

POESIA

ELENE
OTAÑO
BLANCO

MITOLOGIA

Anboton dago Mari
bere koban kantari
mendiz mendi saltari.

Errekan dago lamia
eskuan du urrezko orrazia
ikusiz gero kontuz
egingo du magia.

Basoan Basajaun da bizi
basoko zaindari
bera izaten da lehendabizi
izaten primizi.

Tartalo begi bakar
mukizu eta baldar
basoko gizaki gaizto eta zakar.

Galtzagorriak dira bihurriak.
Beraien txapel ta galtza gorriak
saltoka dabilzan kilikiak
dira basoko gizaki txikiak.

Kontuz Ingumarekin
gauean sartuko zaizu atetik
biharamunak esnatuko zaitu
amesgaiztotik.

Gomendatzen dut nik
ate atzean eguzki-lorea jarririk.
Horrela, gaueko zorigaizto guztiak
etxetik urrundu nahirik.

Leienda, kondaira ta istorio.
gurea zaindu dezagun, bestela akabo.

Anerre





3. SAILA

POESIA

IÑAKI
LASA
GUIMON



BIZITZA

Bizitza
Zer da bizitza?
Gure ilea bustitzen duen
ihintza.

Gure familiari eusten dion
pintza
da bizitza.

Ona eta txarra bizitzeko aukera
aintza
da bizitza.

Momentu txarretan dagoen haize
bortitza
da bizitza.

Gure begiak argitzen dituen
aintza
da bizitza.

Batzuetan bedeinkapena besteetan
dohakaitza
da bizitza.

Gure arima argitzen duen argi
printza
da bizitza.

Zer da bizitza?

Lagun txuri-urdina



3. SAILA

POESIA

**ALATZ
NAZABAL
OLASAGASTI**

POESIA

POESIA
Zer da POESIA?
Ireakia ala zabala?
Emozioa edo jolasa?

Emozioa
Irakurtzeko behar den
sozioa,
horrela sortzen zaizu bizioa.

Jolasa
Ze da jolasa?
Bote-bote edo hitza?
Baldintzatuko du zure bizitza.

Gaia
Ze da gaia?
Leioa edo atea?
Nahiago, POESIA maitea.



POESIA
irakurlearen laguna,
zu izatera
behartzen zaituena.

POESIA
mundu magikoa,
mundu ederra,
mundu askea.

POESIA
Emozioa, jolasa eta gaia
SENTIMENDUEN ATE NAGUSIA

Txikilikuatre



4. SAILA

POESIA

**JUNE
DEL TESO
OLAIZOLA**

EZER GABE HOBE

Itsasoa zakar dago,
itsasoaren erdian geratu naizelako.

Txoriak zuhaitzetik joan dira,
haren itzalean eseri naizelako.


Liburuari hizkiak desagertzen ari zaizkio,
liburuaren azala gustatu
eta liburua ireki dudalako.

Eta hori guztia zergatik?
Nire azal kolorea besteena bezalakoa ez delako.

Itsasoa, txoriak eta liburua bezain arraroak dira
nire hemengo "lagunak".

Eta zergatik?
Beraien azal kolore bera ez dudalako.

Amets egiten dut, itsasoa, txoriak eta liburuak
nire lagun izatea.
Baina bizia daukan inork ez du nirekin egon nahi.



Itsaso zakarra zeharkatu dut,
herri honetara iristeko,
bizitza hobearen bila etorri bainintzen,
baina ez da hala izan,
hori nire amaren ametsa bakarrik zen.

Bidaia luzea egin dut,
txoriek bezala,
itsasoa zeharkatuz iristeko hona.
Azkenean, iritsi naiz, urik gabe, janaririk gabe,
eta ezer gabe bizi nintzen herrira.

Nire herrian ez zegoen itsasorik,
ez txoririk, ez libururik...
Ez nuen bertakoek ni ikustean
pentsatzen zutenaz kezkatu behar,
liburuen azalen eran.

Familia eta lagunak nituen.
Ez nuen gehiago nahi, ez nuen gehiago behar.



4. SAILA

POESIA

AROA
ARBIDE
ZALAKAIN

E
G
V
N
G
E
L
D
N
A
U
K
E
R
N
E
A
G
BIZITZA
A
D
L
I
A
G
A
R
R
A
A
L
D
I
A
I
A
J
O
I
N
A
R
R
I
A
K
A
E
R
A

ZER DA BIZITZA?

Bizitza iragana, oraina
eta etorkizunaren oinarria da.
Zeure burua izateko etenaldia.
Zure lehen eta azken eguneko egunsentia

Zer da bizitza?
Fikzioaren eta errealtatearen arteko garapena,
Zure arazoaren eta akatsen egilea.
Zure zortearen eta gauza onen emaila.
Zure denbora aprobetxatzeko unea.

Zer da bizitza?
Arnasa hartzeko geldialdia.
Momenturik
garrantzitsuenaren esperoan
egiten den ekitaldia.

Zer da bizitza?
Zure sentimenduak
adierazteko lur zatia.
Emozioak askatzeko baliagarria.
Zure hausnarketaren gidaria.

Zer da bizitza?
Norberarena den mundu ikuskera.
Akatsetatik ikasteko aukera.
Zu zeu izateko
moduaren jokaera.

Zer da bizitza?



5. SAILA

POESIA

IRATI
GAZTELUMENDI
YARZABAL

BIZI GAREN BITARTEAN

1, 2, 3, 4...

Denboraren orratzak aurrerantz bultzatzen nau.


5, 6, 7, 8...

Zoriontsu hazi nahi.

Badakigu, egunero, gure azken hitza gero eta gertuago daukagula,
mundu hau begi hauekin azken aldiz ikusiko dugula,
garen hori noizbait itzaliko dela.

Baina triste bizi behar al gara horregatik?

Heriotza da gizakioi
beldur handien sorrarazten digun momentua,
gure eta gure ondokoen bihotzeko atea ere noizbait joko duelako.
Horri buruz pentsatzen ari garen bitartean, iluntasunean ez isolatzeko,
bizitzaren lege den momentu horri
alde onetik begiratu beharra dago. Zergatik ez?



Hiltzen garenean, mendiko soroetan
lore eder bat jaiotzen da.
Edota itsaso barrenetik
kantuka datozen olatu horietako beste bat eratzen dugu.
Egunero ateratzen den
eguzki horretako zati bihurtzen gara,
eta goizero edota gauero, egunsentiro edota ilunabarrero,
norbaiti aurpegian irribarre bat margotzen diogu.
Ez al da polita?

Denbora den erloju horretako hondar ale bakoitza
pixkana-pixkana erortzen doa
eta horrek suntsitzen ari garen paradisu honetan
egiten dugun egonaldia gehiago aprobetxatzea eragiten du.
Oporretan gertatzen zaigun bezalaxe.
Ondorioz, badakit nire aitonaren eskua azken aldiz
laztanduko dudan eguna ere iritsiko zaidala,
baina horregatik,
orain arte laztantzeko aukera eduki dudan eta oraingoz badudan
egun hauetan, nire eskuko zelula guztiak
bere esku zimurtu gozo horietatik pasatzen ditut.
Ederra benetan.

Beraz, heriotza da gure bizitzari zentzua ematen dion
ezusteko momentua.

Hilko ez bagina, asperdura izango litzateke
gure bidelagun bakar.

Bizitzako legea da: jaiotzeak hiltzea dakar.

Horregatik, gure bihotza taupadaka hasten den momentutik,
biriketara arnasa iristen ez zaigun arte,
zoriontsu izateko ahalegina egin behar.

1, 2, 3, 4...

Denboraren orratzak aurrerantz bultzatzen nau.

5, 6, 7, 8...

Zoriontsu hazi nahi.

Laika



5. SAILA

POESIA

LUR
LARRAÑAGA
ARRETXE

EZAGUTU GINEN EGUNA

Oraindik ere gogoratzen dut
lehen aldiz ikusi zintudan egun hura.
Bakarrik nengoen parkean eserita
denengandik urruti,
nire pentsamenduetan murgilduta,
oso astiro igarotzen zen denbora.
Baina bat-batean zu hurbildu zinen
ni nengoen bankura.

Ezagutu zintudan egunean
nire bizitza guztiz aldatu zen.
Denborarekin, pixkanaka-pixkanaka
gero eta gehiago hurbiltzen joan ginen:
hainbeste esperientzia,
hainbeste bizipen,
hainbeste oroitzapen,
hainbeste amets.

Eta horrela, konturatu gabe
nire bizitzako parte bihurtu zinen.
Inoiz ez nuen pentsatu
hori aldatu zitekeenik,
egunero zure alboan egongo nintzela
pentsatzen nuen.
Baina guztiz oker nengoela
konturatu nintzen.

Egun batean berri txar batek
nire bizitza gogor astindu zuen.
Istripu larri bat izan zenuen
eta ospitalera eraman zintuzten.
Egunero bisitatzen zintudan,
baina zu gabe denbora astiro igarotzen zen.
Eta inoiz esnatuko ez zinela esan zidatenean
nire mundua mila zatitan puskatu zen.

Orain zugandik urrun nagoela
zure hutsunea sentitzen dut.
Egunero-egunero
faltan sumatzen zaitut.
Denboran atzera bidaiatu nahiko nuke
dena hasi zen egun hartara,
berriro itzuli nahiko nuke
gure istorioaren hasierara.

Izar uxo





5. SAILA

POESIA

**LOREA
ARRUABARRENA
DESTRIBATS**

ORRI ZURI-ZURIA

Orri zuri-zuria,
amets guztiak ilustratu ditzakeen paper txikia.

Orri zuri-zuria,
beti entzuteko prest dagoen belarria.

Orri zuri-zuria,
sormenaren euskarria.

Orri zuri-zuria,
oraindik ezagutzeko dugun atzerria.

Orri osatu berria,
gure buruaren isla garbi-garbia.

Orri osatu berria,
inguratzen gaituzten arazoekiko aisialdia.

Orri osatu berria,
iluntasunean gidatzen zaituen argia.

Orri osatu berria,
burua bueltaka jartzen duen ariketa handia.


Orri osatu berria,
tiraka eta tiraka nor zaren ikasten laguntzen dizun haria.

Orri osatu berria,
bi munduren arteko zubia.

Orri osatu berria.
zure burua frogatzeko teknika oso baliagarria.

Orri osatu berria,
momentu ilunetan behar dugun atsedentaldia.

Orri osatu berria,
edozer egiteko balio duen oparia.



Orri osatu berria,
galtzen garenean gure erreferentzia.

Orri osatu berria,
zauriak estaltzen laguntzen duen zapia.

Orri osatu berria,
sentimenduek, preso egon eta gero, egiten duten lasterraldia.

Orri osatu berria,
barruko suak itzaltzeko hodia.

Orri osatu berria,
lainoen artetik ateratzen den eguzkia.

Orri osatu berria,
ekaitzaren ondorengo oskarbia.

Hitez betetako orria,
zain dut Xabier Lete lehiaketako saria.

Kresala



6. SAILA

POESIA

MALEN
ETXEBESTE
LEKUONA

EZIN DUT

Ez dakit
nor zaren.

Zergatik ezkututzen zara
mozorro beldurgarri horren azpian?

Nork
kondenatu zaitu
betiereko iluntasun horretara?

Bizi zaren zulo beltzean
sartu nahi izan dut maiz.

Hainbeste denboran
zure gordelekutzat izan duzun zokora hurbildu,
nire besoen artean estutu
eta etxerako bidea
erakusteko asmoz.

Zuk ez duzu nahi, ordea.
Ihes
egiten duzu.



Barrua usteltzen ari zait
zu horrela ikusita.

Odol tanta lodiek
malkoak
ordezkatu dituzte.

Zu ulertzen
saiatu naiz.

Zin degizut
ezinezkoak eta bi egin ditudala
zure mina,
zure gorrotoa...
nire egiteko.

Zure isiltasun itogarria besarkatzen
saiatu naiz.

Zure begirada hotza arnasten
saiatu naiz.

Zure azal zigortua entzuten
saiatu naiz.

Baina ezin dut.

Ezin dut ulertu.

Ez naiz
ulertzeko gai:

zergatik ez duzu izan nahi?

Korapiloak




6. SAILA

POESIA

MAREN
AGINAGA
BOTE

LORATU



Zenbait egunetan
bakardadeak itotzen nau.
Lainoek nire zerua
estaltzen dute,
eta argi-izpien
berotasunaren faltan
zulo batean erortzen naiz.
Egun horietan,
ingurua zuri-beltza
bihurtzen da.
Gogo eta ilusio guztiak
desagertzen dira
eta gainean dudak zamak
ez dit aurrera egiten uzten.
Nekatuta nago,
gorputzak ere
ez dit erantzuten.
Jada ez dakit zer den erreala
eta zer ez.
Jada egiten ari naizen guztia
zalantzan jartzen dut
eta nor naizen ere
galdetzen diot
neure buruari.

Baina pixkanaka,
eguneko lehen eguzki izpiak
agertzen hasten dira.
Eguzki-lorez beteriko
zelai batean aurkitzen naiz
eta beraiek emandako
argitasunaren laguntzaz
altxatzen naiz.

Gauza txikiak duten garrantziaz
ere jabetzen hasten naiz.
Besarkada, musu
edo irri bakoitzaren
edertasunaz ohartzen naiz.
Inoiz ez bezala.
Konturatu naiz
ezin dudala denbora gehiago galdu
nire esku ez dauden gauzez kezkatzen,
batzuetan nire etsai handiena
ni neu bainaiz.
Baina eroriz ikasten da oinez,
eta loreek euriaren beharra
ere badute loratzeko.

Egunen batean atzera begiratzean,
ikusitako nahi nuke
zenbat barre egin dudan.
Eman eta jaso ditudan
besarkada eta musu guztiak.
Etsipenaren zein zorientasunaren erruz
isuritako malko guztiak.
Benetan merezi duten pertsonen
eskaintako denbora,
eta lotsarik gabe dantzatu eta abestu
ditudan momentu guztiak.
Baina bereziki, nire bizitza bizi izan dudala
nahi izan dudan erara.

Taxux



Antolatzailea:
Euskara Batzordea



OIARTZUNGO
UDALA